



areatza

Ekaina 2017 Junio 19 zk.

lantzen

Areatzako neskatok Bizkaiko txapeldunak!



- Etxebizitzak esleitu dira
- Peatonalizazio proposamena
- Igerilekuak prest
- Jabekuntza Eskola, datorren ikasturtera arte

Telefonoak



Areatzako Udala

946 73 90 10

Parketxea

946 73 92 79

Gorbeialde Elkartea

946 31 55 25

Arratiako Udalen Mankomunitatea

946 31 17 17

S.O.S Deiak

112

Medikuaren kontsulta

946 00 74 63

Galdakaoko Ospitalea

944 00 70 00

Botika

946 73 93 22

Autobusak

Bizkaibus 902 22 22 65

La Unión 944 27 11 11

CEPSA

Larrialdiak (24 ordu)

902 10 02 24

Bezeroarentzako arreta (24 ordu) 902 41 64 16

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa

944 87 31 87

Iberdrola

944 15 14 11

Indarkeria matxistaren aurkako telefonoa

900 84 01 11

Udal Sareak

944 87 31 87



Guardiako botikak

Uztailaren 3tik 9ra
Abuztuaren 14tik 20ra
Irailaren 11tik 17ra

Rodriguez Martinez,
M^a Purificación.

Igorre. Lehendakari Agirre, 27.

Tel: 946 73 61 09

Uztailaren 10etik 16ra
Abuztuaren 21etik 27ra

Traver Nicolau, Eduardo.
Bedia. J.A. Agirrerren

Enparantza, z/g.

Tel: 946 31 39 50.

Uztailaren 17tik 23ra
Abuztuaren 28tik irailaren 3ra
Irailaren 25etik urriaren 1era

Badiola Uriarte, M^a Nekane.

Artea. Herriko plaza, 7.

Tel: 946 31 73 11

Uztailaren 24tik 30era
Irailaren 4tik 10era

Goikoetxea Basterretxea, Pilar.
Dima. Ugarana, 33.

Tel: 946 73 70 54

Uztailaren 31tik abuztuaren 6ra

Zamalloa Asua, M^a Arantza.
Areatza. Askatasuna kalea, 15.

Tel: 946 73 93 22

Abuztuaren 7tik 13ra
Irailaren 18tik 24ra

Arrieta Bereciartua, Naiara.
Lemoa. Atutxa Salburua, 1.

Tel: 946 31 30 18

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Gometza Onaindia, Ana.

Francisco Cortabarría, 2. Basauri.

Tel: 944 49 05 87



Autobus ordutegiak

Bizkaibus

Zeanuri-Lemoa-Galdakaoko ospitalea-Bilbo

Lanegunetan/Laborables:
(lehenengoa/inicio) **05:00etan**

(ordu erdiro/cada media hora) **05:15etik 06:45era**

(orduro/cada hora) **06:45etik 21:45era**

Larunbatetan/Sábados:
(lehenengoa/inicio) **05:00etan**
(orduro/cada hora) **05:45etik 21:45era**

Jaiegunetan/Festivos (orduro/cada hora) **07:45etik 21:45era**

Bilbo-Galdakaoko ospitalea- Zeanuri

Egunero/Diario (orduro/cada hora) **06:15etik 22:15era**

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

*(Ubidetik irteerak/Salidas desde Ubide)
Lanegunetan eta larunbatetan/Laborables y sábados
(bi orduro/cada dos horas) **06:45etik 20:45era**

Jaiegunetan (bi orduro/cada dos horas) **08:45etik 20:45era**

*(Otxandiotik irteerak/Salidas desde Otxandio)
Lanegunetan eta larunbatetan/Laborables y sábados
(orduro/cada hora) **06:55etik 20:55era**

Jaiegunetan (bi orduro/cada dos horas) **08:55etik 20:55era**

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Egunero/Diario **06:45etik 20:45era**
*Otxandiora/a Otxandio (orduro/cada hora)
*Ubidera/a Ubide (orduro/cada dos horas)

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (autopistatik/por autopista)
Lanegunetan/Laborables **07:00etan eta orduro 08:15etik 21:15era**

Larunbat eta jaiegunetan/Sábados y festivos **(ez dabil/no circula)**

Bilbo- Lemoa- Zeanuri (autopistatik/por autopista)

Lanegunetan/Laborables (orduro/cada hora) **07:00etatik 21:00etara**
Larunbat eta jaiegunetan/Sábados y festivos **(ez dabil/no circula)**



HIRI ALTZARIAK KONPONDU ETA EGOKITU EGIN DIRA

Aurrekontuen parte hartze kanpainan hainbat herritar kexu eta kezkatuta agertu ziren zenbait hiri altzari ez zeudelako egoera onean eta txukundu egin behar zirelako. Horrenbestez, azken hilabeteetan zenbait konponketa egin dira eta apurtuta zeuden objektu batzuk ordeztu egin dira; hala, hainbat jesarleku eta paperontzi konpondu egin dira, eta falta diren lanak datozen asteetan bukatuko dira. Horrez gain, zenbait bidetan ispiluak ere jarri dira, ibilgailuz mugitzerakoan ikuspegi hobea izateko.

REPARACIONES EN EL MOBILIARIO URBANO

En la campaña de participación de los presupuestos muchos/as vecinos/as se mostraron preocupados/as por la situación del mobiliario urbano. Por ello, en los últimos meses se han hecho varios arreglos además de cambiar algunos objetos que estaban dañados, como bancos y papeleras. Por último, se han instalado varios espejos en algunas vías, para mejorar la visibilidad.

KOLUNPIO BERRIAK, HAURREKIN ADOSTUTA

Aurrekontu parte hartzaileen kanpainan, eskolako haurrak udaletxean izan ziren eskolan landutako lana azaltzen, eta haurren beharrian eta premiak udal ordezkariari helarazten. Bada, oraingoan, udaleko gobernu taldeko kideak berriz ere eskolako haurrekin elkartu dira aurrekontuan prestatutakoa azaldu eta kolunpio berriei buruzko iritziak jasotzeko. Horrela, zabu edo kolunpio berrien artean aukeran dauden alternatibak azaldu zitzaizkien haurrei, eta denok batera, haur zein udal ordezkari, aukerarik onenak adostu zituzten. Horrela, hurrengo asteetan batzar hauetan erabakitakoa mar txan jartzea espero da.

LOS NUEVOS COLUMPIOS SE HAN CONSENSUADO CON LOS/AS NIÑOS/AS

En la campaña de participación de los presupuestos, los/as alumnos/as de la escuela transmitieron sus necesidades a los representantes del gobierno municipal. Ahora, los/as concejales se han vuelto a reunir con los/as más pequeños/as para explicarles los presupuestos y para recoger opiniones sobre los nuevos columpios a instalar. Después de exponer las distintas alternativas que existen, han elegido entre todos/as las mejores opciones.

UDALETXEKO VELUX LEIHOAK KONPONDUKO DIRA

Aurtengo aurrekontuan diru partida bat aurreikusitakoan udaletxekeko velux leihoak konpontzeko; izan ere, erabilera eta urteak direla medio, gela askotan leihoak zahartuta egon dira eta ikasturtean zehar itoginak sortu dira ikastaro ugari egiten zirenean. Hala, udalak sei leiho udan konponduko ditu, eta gainerakoak datorren urtean. Bi gailu elektriko jarriko dira, eta horrela zabaltzeko eta ixteko arazoak ekidingo dira. Horretarako hiru eskaintza eskatu dira eta merkeena Jose Maria Navarrok egin du 6.088,72 eurotan.

EN VERANO SE ARREGLARÁN LOS VELUX

En el presupuesto de este año se ha previsto una partida económica para arreglar los velux o ventanas abatibles del ayuntamiento, ya que la mayoría están estropeadas. En verano se arreglarán seis ventanas, mientras que el resto se dejará para el año que viene, y se instalarán determinados dispositivos eléctricos para evitar problemas de cierre. Se han solicitado tres ofertas y la más ventajosa ha resultado ser la de Jose Maria Navarro, por 6.088,72 euros.

areatza
lantzen

Argitaratzailea: **Areatzako Udala**
Lege Gordailua: **BI-906-2016**
Diseinua, **IBEGRAFIK**
eta maketazioa: **www.ibegrafik.com**

OINEZKOEN GUNEA INDARTZEKO DIRU-LAGUNTZA LORTU DU UDALAK

Azken aldizkarian azaldu bezala, udalak zenbait diru-laguntza eskaera aurkeztu zituen hainbat erakundetan, eta berriki deialdi horietako baten ebazpena jaso du udalak, hain zuzen ere, Askatasun kaletik plazara doan aldapan oinezkoen gunea indartzeko. Proiektu honen ondorioz, aldaparen erdian dauden pilona handiak kendu egingo lirakeke, eta aldapan dagoen galtzada guztia berriztatuko litzateke. Oinezkoak Askatasun kaletik Goikokalera eroso eta seguru joateko ere aldaparen alde batean espaloi bat jartzea aurreikusitako da.

Hala, 44.853 euroko proiektu osotik 13.561 euro jasoko ditu udalak, %30eko diru-laguntza lortuz. Lanen esleipena uztailean egitea espero da, lanak irailean hasteko asmoz.

EL AYUNTAMIENTO HA LOGRADO UNA SUBVENCIÓN PARA REFORZAR LA ZONA PEATONAL

El Ayuntamiento de Areatza ha logrado una subvención para hacer mejoras en la cuesta que va desde la calle Askatasun hasta la plaza. El proyecto prevé fomentar la zona peatonal retirando las pilonas de la cuesta, y además, a un lado de la misma se ha previsto realizar una acera.

El proyecto tiene un presupuesto de 44.853 euros, y la subvención es de 13.561 euros, es decir, de un 30%. Se prevé adjudicar la obra en julio para que los trabajos empiecen en septiembre.



KARPOKO ETA OSPITALOSTEKO ETXEBIZITZAK ESLEITU EGIN DIRA

Areatzako Udalak eta udalaren menpeko Areatza 1338 SL sozietateak zenbait etxebizitza dituzte jabetzan, eta horietako bost hutsik izan dira azkenaldian, Karpon eta Ospitalosten, hain zuzen ere. Hala, maiatzaren erdialdean egindako tramiteen ondorioz hutsik zeuden etxebizitzak esleitu egin ziren; ekainean zehar zenbait konponketa eta margotze-lan egin dira etxebizitzetan, pisuak egoera onean uzteko, eta erabiltzaile berriek ekaineko azken asteetan egin dituzte etxer aldatzeko lanak; hala, uztailearen 1etik aurrera bertan bizitzeko egongo dira.

Orain arteko prozedura

Prozesuan zenbait aldaketa egin dira orain arte erabiltzen zen metodologiarekin alderatuta. Izan ere, aurretik egindako esleipen prozeduran eskatzaile guztien artean zozketa egin zen, erabiltzaileen ezaugarriak eta premiak aintzat hartu gabe. Horrez gain, erabiltzaile guztiak alokairu kopuru bera ordaintzen zuten, familia unitate bakoitzaren ezaugarriak edo egoerak kontuan hartu gabe. Hala, erabiltzaileak etxebizitzetan bizitzen izan diren bost urteko epe honetan kontratuak edo betebeharrak ez dira berrikusi, eta, horrenbestez, udalak zenbait gorabehera antzeman ditu kasu batzuetan.

Oraingo prozedura

Oraingo honetan, berriz, Areatzako Udalak Etxebidek egindako zerrenda baliatu du aipatutako etxebizitzak ordena jakin batean esleitzeko. Etxebidetik iritsitako zerrendari errolda irizpidea aplikatu zaio soilik, Areatzan erroldatutako eskatzaileei lehenetsuna emanez erroldatze antzintasunaren arabera. Horrez gain, esleipendun bakoitzaren egoera aztertu da eta bakoitzari errenta kopuru jakin bat jarriko zaio, familia bakoitzaren diru sarreraren arabera. Egoerak urtero berrikusi dira errentaren truke ordaindu beharreko kalkulatzeko, eta hiru urte barru esleipen prozesu osoa berrikusiko da.

SE HAN ADJUDICADO LAS VIVIENDAS DE KARPO Y OSPITALOSTE

El Ayuntamiento de Areatza y Areatza 1338 SL, sociedad dependiente del ayuntamiento, poseen varias viviendas en su propiedad, y cinco de ellas, ubicadas en Karpo y Ospitaloste, han sido adjudicadas tras realizar los trámites necesarios a mediados de mayo. Durante el mes de junio se han hecho varios arreglos y las tareas de mudanza de las nuevas personas usuarias, para que puedan instalarse en dichas viviendas a partir de 1 de julio.

Cambios en el procedimiento

Se han hecho varios cambios en el procedimiento de adjudicación, ya que previamente se habían adjudicado las viviendas mediante un sorteo, sin tener en cuenta las necesidades y características de los/as inscritos/as. Además, todas las personas usuarias abonaban una misma cuota de alquiler, y durante los últimos cinco años no se han revisado los contratos y obligaciones de los/as inquilinos/as.

El procedimiento actual

Ahora, el Ayuntamiento de Areatza ha decidido utilizar la lista de Etxebide para adjudicar las viviendas. A esa lista se le ha aplicado el criterio de empadronamiento, dando prioridad a las personas que llevan más años empadronadas en Areatza. Además, se ha estudiado la situación económica de cada solicitante y la renta se ha establecido según los ingresos de la unidad familiar.

La situación económica de las familias se revisará todos los años para revalorar las cuotas de alquiler, y cada tres años se revisará todo el proceso adjudicatario.

HERRIKO SEINALEAK ETA INFORMAZIOA HOBETZEN ARI DA UDALA

Herrira iristen diren bisitariei laguntze aldera, udalak hainbat seinale eta informazio puntu enkargatu ditu, eta horrez gain, Gorbeia buruzko panel bat ere jarri da parkean.

Seinaleei dagokienaz, bai herriko aparkalekuen kokalekua, bai herrigunea edo alde zaharra adierazteko seinaleak dira. Aparkalekuak adierazteko seinaleak herri sarrera eta bidegurutze gehienetan ipiniko dira. Horrela, turistek ibilgai-luak herriko kanpoko aparkalekuetan uztea lortu nahi da, herritik oinez mugitu daitezuten. Informazio puntuak, berriz, aparkalekuetan jarriko dira, eta alde zaharra, eraikin emblematikoak eta herriko dendak non dauden adieraziko da, baita horietara iristeko zenbateko distantzia dagoen ere. Informazio puntuetan agertuko diren irudi horiek, gainera, herriko bi marrazkilarik egin dituzte, hain zuzen ere, Ibai Milikua Etxebarria eta Jon Artetxe Artabek. Hala, turistek eraikin horien informazioa lortu ahal izateko, zenbait QR kode ere jarriko dira, eta QR kodeak telefono mugikorrekin eskaneatuz kasu bakoitzeko eraikinen informazioa lortu ahalko da.

Bidenabar, parkean Gorbeia buruzko informazio panel bat ere jarri da. Bertan ibilbideen inguruko informazioa, gomendioak eta oharrak ikus daitezke, Areatzara iritsitako edonork mendiari buruzko informazioa jaso dezan.

EL AYUNTAMIENTO ESTÁ REALIZANDO MEJORAS EN LA INFORMACIÓN Y SEÑALIZACIÓN DEL MUNICIPIO

En aras de ayudar a los/as turistas que lleguen a Areatza, el ayuntamiento ha encargado varias señales y puntos de información; además, se ha instalado un panel informativo sobre el Gorbeia.

Las mencionadas señalizaciones servirán para informar sobre los aparcamientos y el centro histórico. De esta manera se busca que los/as visitantes estacionen sus vehículos fuera del centro histórico y se muevan a pie. Los puntos de información se colocarán en los aparcamientos, y señalarán el centro histórico, los edificios emblemáticos y los comercios del municipio, así como la distancia a pie hasta ellos. Se añadirán también sendos dibujos creados por Ibai Milikua Etxebarria y Jon Artetxe Artabe, ambos vecinos de Areatza, y un código QR, que podrá ser escaneado mediante el teléfono móvil para recibir en el mismo dispositivo la información turística acerca de cada edificio.

Por último, en el parque se ha instalado un panel informativo sobre el Gorbeia, con datos sobre las rutas, recomendaciones generales y teléfonos de interés.

UDALAK ZENBAIT EROSKETA EGIN DITU

Aurreko alean aurreratu genuen bezala, orain arte erabiltzen ziren biltegiak garbitzen eta berrantolatzen aritu da udala. Hala, horren ondorioz ikusi ahal izan da hainbat tresna eta baliabide falta zitzaizkiola udalari, besteak beste, atoi bat eta sorgailu bat. Lanerako ezinbestekoak direla irizita, atoi eta sorgailu bana erosi ditu udalak

EL AYUNTAMIENTO HA REALIZADO VARIAS ADQUISICIONES

Durante la limpieza y reorganización de los almacenes se ha constatado que faltaban varios/as herramientas y recursos materiales imprescindibles para el trabajo. Así, se han comprado un remolque y un generador.



IGERILEKUETAKO KUDEAKETA ETA ALDAMIN TABERNA ESLEITU DIRA

Uda heltzarekin batera, Areatzan zein gure inguruan igerilekuari begira jartzen dira asko eta asko. Hala, Areatzako Udalak igerilekuen kudeaketa zein Aldamin taberna esleitu ditu berriki, eta zenbait berrikuntza izango dira aurrerantz.

Igerilekuen kudeaketa

Iaz igerilekuen kudeaketaz arduratu zen enpresak, Xaker enpresak, uko egin zion kontratua luzatzeko aukerari, eta, horrenbestez, udalak berriz ere esleipen prozesuko deialdia egin behar izan du. Hala, bi enpresa aurkeztu ziren deialdira, eta irabazlea Larrialdi, salbamendu eta sorospen zentroa izan da, 38.500 euroko kontratuaren truke. Aipatutako enpresak lau langile kontratatu ditu, bi langile sarreran egoteko, beste langile bat sorosle lanetarako, eta azkena garbiketa lanak egiteko. Lauak Areatzakoak dira.

Aldamin tabernaren esleipena

Aurreko alean azaldu genuen moduan, Aldamin taberna itxi egin zen, eta horrenbestez, aurretik ere esleitu behar izan du Areatzako Udalak. Esleipen prozesuan bi hautagaitza aurkeztu ziren. Prozesu horretan proposamenaren dokumentazioa aurkeztu behar izan da eta, ondoren, hautagaiek elkarrizketa bat egin behar izan dute udaleko ordezkariekin. Dokumentazioa aztertu eta elkarrizketa egin ondoren, Kontratazio Mahaiak (EAJ eta EH Bildu) aho batez aukeratu zuen proposamen irabazlea. Hala, Javi Atxa izango da aurrerantz Aldamin tabernako arduraduna.

OBRA TXIKIAK

Iaz hasitako hobekuntzekin jarraituz, aurten torneo ezarri da igerilekuetako kontrolaren zerbitzua hobetzeko. Honekin batera, igerilekua inguratzen duten egurrak aldatu egin ditugu eta goiko komunetara doan pasabidea ere hobetu egin da. Argitasun gehiago sartzeko asmoz, goian egon den setoa ere kendu da, igerilekuetako berdegunea handituz.

SE HAN ADJUDICADO EL BAR ALDAMIN Y LA GESTIÓN DE LAS PISCINAS

El ayuntamiento ha adjudicado recientemente tanto la gestión de las piscinas como el bar-restaurant Aldamin.

Adjudicación de las piscinas

La empresa contratada el año pasado, Xaker, rechazó ampliar el plazo de la contratación, por lo que este año el contrato ha vuelto a salir a concurso. Fueron dos las empresas que se presentaron, y la seleccionada ha sido Larrialdi, salbamendu eta sorospen zentroa, con un contrato de 38.500 euros. La citada empresa ha contratado a cuatro personas, todas ellas vecinas de Areatza.

Adjudicación del bar-restaurant Aldamin

Tras el cierre del bar, este año el contrato ha vuelto a salir a concurso. Se han presentado dos candidaturas, quienes han presentado la documentación correspondiente y han realizado una entrevista con los responsables municipales. Posteriormente, la Mesa de Contratación (PNV-EH Bildu) decidió por unanimidad cual sería la opción ganadora. Por tanto, el responsable del bar Aldamin será a partir de ahora Javi Atxa.

SE HAN REALIZADO PEQUEÑAS OBRAS

Este año se han mejorado las instalaciones dotándolas de un torno en la entrada, para así realizar un mejor control. Además, se han reemplazado las maderas entorno a la piscina, y se ha mejorado el camino hacia los baños de arriba. Finalmente, para que entre más luz se ha retirado parte del seto.

KALEKO ANIMALIEN KUDEAKETA

Areatzako kaleetan animaliek sortzen dituzten gorabeherak bultzatuta, udalak animalien kudeaketaren inguruko zenbait protokolo ezarri ditu azken hilabeteetan; hala, txakur eta sagu eta arratoien inguruko protokoloak ezarri dira, eta katuen arazoari aurre egiten ere hasi da.

Herrietan agertzen diren txakur galduen arduraren da. Orain arte Areatzako Udalak ez du izan arazo honi aurre egiteko legez beharrezkoa den inolako protokolorik martxan. Orain, udalak kontratu bat sinatu du Kantarriketaren enpresarekin; kontratu honen arabera, edozein txakur galdu Areatzan agertuz gero Kantarriketaren enpresa arduratuko da bere instalazioetara eraman eta animalien mantenuaz. Kudeaketa guzti honen kostu ekonomikoa altua da. Izan ere, bi tasa ordaindu behar dira: alde batetik urteko tasa bat, Kantarriketaren enpresa eskuragarri egoteagatik (2.035 euro+BEZa) eta, beste alde batetik, beste tasa bat, txakurak batu eta eguneroko mantenuagatik. Hau ikusita, udala txakurren inguruko ordenantza aldatzen dabil, prozesu honetatik sortzen diren kostuak txakurren jabeen bideratzeko helburuarekin.

Horrez gain, kaleko katuak ere nabarmen ugartu dira azken aldian, eta udalak fenomeno hori kontrolatu nahi du. Kaleko katuak ugartzea arazo izan daiteke kontrolatu gabeko populazioa bihurtzeko, eta horrelakoetan gaixotasunak eta konplikazioak sor daitezkeelako, osasun publikoan arazo larriak eraginez. Kaleko animaliak elikatzean animalien ugalketa azkartu egiten da; horregatik gogorazi behar da kaleko katuak elikatzea debekatuta dagoela eta horrelako arau haustetarako zigorrak ezarri daudela. Udalak ez du oraindik aipatutako zigorrak aplikatzen hasi nahi, baina horrela jokatzeko duten herritarrei arduraz eta erantzukizunez jokatzeko eskatu nahi die.

Bidenabar, udalak aipatutako Kantarriketaren enpresarekin kontratu bat sinatu du kaleko katuak harrapatu eta esterilizatzeko. Esterilizazio lana progresiboki egitea aurreikusita da, eta katu bakoitzeko bataz beste 70 euroko kostua dauka.

Bukatzeko, sagu, arratoi eta desinfektatzeko protokoloak ere martxan ipini dira; azken kontratu honen urteko kostua 1.452 eurokoa da.

UDALAK JENDAURREAN AURKEZTU DU PEATONALIZAZIO PROPOSAMENA

Ekainaren 27an egindako aurkezpenean, Areatzako Udalak herriko alde zaharra peatonalizatzeko prestatu duen proposamena aurkeztu zuen jendaurrean. 35 lagun inguru batu ziren eta udalak bere proposamena aurkezteaz gain herritarren iritzia eta zalantzak ere komentatu ziren saioan.

Arazoa

Alde zaharrera autoz sartzeko eta bertan aparkatzeko arazo ugari sortzen ditu gure herrian. Alde zaharrean bertan bizi diren zenbait lagunek, esaterako, maiz arazoak izaten dituzte etxeko ataritik ateratzeko, ibilgailuak ate aurre-aurrean izaten direlako; arazoak okerrera egiten du gurgildun aulki edo haurren aulki bat atera behar izanez gero. Horrez gain, alde zaharrean garajeak dituzten herritarrek ere askotan arazoak dituzte beraien ibilgailuak beraien garaje propioetan sartzeko.

Nabarmendu behar da, gainera, gure herrian hainbat aparkaleku daudela erdigunetik oso gertu, eta askotan hutsik izaten direla, alde zaharra autoz beteta dagoen bitartean.

Hala, arazo honi irtenbidea emateko gakoetako bat kontzientziarazioa da, autoa gutxiago erabiltzeaz kontzientziatu eta hala jokatzeko lortu behar baitugu.

Proposamena eta parte hartzea

Datozen asteetan udalak proposamenaren berri emango du kalean, eta, horrez gain, herritarrek, nahi badute, beraien iritzia plazaratzeko aukera izango dute. Horretarako kalean buzoiak aurkituko dituzte, eta areatzapartehartzea@gmail.com email helbidea erabili ahalko dute.

EL AYUNTAMIENTO PRESENTA SU PROPUESTA DE PEATONALIZACIÓN ANTE LA CIUDADANÍA

En la presentación realizada el 27 de junio, el ayuntamiento presentó ante la ciudadanía su propuesta de peatonalización para el casco histórico. En la cita se reunieron cerca de

SE HAN ACTIVADO VARIOS PROTOCOLOS PARA ANIMALES ABANDONADOS

El ayuntamiento ha puesto en marcha sendos protocolos para gestionar los animales desatendidos, concretamente los perros abandonados y los gatos callejeros; además, también se ha activado una campaña de desratización y desinfección.

En lo relativo a los perros, hasta ahora el ayuntamiento no contaba con ningún protocolo legalmente obligatorio para este tema, por lo que recientemente se ha suscrito un contrato con la empresa Kantarriketas, para que sea la empresa quien se encargue de trasladar a los perros abandonados hasta sus instalaciones y su mantenimiento. El coste de estas tareas es alto, ya que es necesario abonar dos tasas; por un lado, una tasa por la disponibilidad de la empresa (2.035 euros + IVA) y, por otro lado, una tasa por la recogida y mantenimiento de los canes. Visto lo anterior, el ayuntamiento trabaja ya para modificar la ordenanza, en aras de consignar dichos costes a los/as dueños/as.

Por otro lado, durante los últimos meses la población de gatos de la calle ha aumentado considerablemente, y el ayuntamiento quiere controlar ese fenómeno, ya que este hecho podría acarrear problemas de salud pública. Alimentar a los gatos callejeros acelera la reproducción de estos animales, por eso es importante recordar que está prohibido alimentarlos. Existen también sanciones para casos así; el ayuntamiento no quiere empezar a aplicarlos, pero quiere pedir a la ciudadanía que actúe con responsabilidad.

También en este aspecto se ha logrado un contrato con la empresa Kantarriketas para recoger los gatos de la calle y esterilizarlos. Se prevé que dicha tarea se haga progresivamente, y el costo de esterilización por gato es de 70 euros.

Por último, también se han activado los protocolos para la desinfección y desratización, con un coste anual de 1.452 euros.

35 personas, y además de explicar el proyecto, se recabaron distintas impresiones y opiniones de entre los/as allí reunidos/as.

Problemática

Acceder al casco histórico de Areatza y estacionar el automóvil en el mismo genera severos problemas. Numerosos/as vecinos/as del casco histórico sufren problemas como por ejemplo no poder salir de sus portales por tener un vehículo estacionado justo delante. La problemática se agudiza cuando es necesario salir en silla de ruedas o con un carrito para bebés.

Es necesario resaltar, además, que muy cerca del casco histórico encontramos numerosas plazas de aparcamiento, que a menudo están vacías.

Propuesta y participación ciudadana
En las próximas semanas el ayuntamiento informará acerca de esta propuesta a pie de calle, y además se habilitarán varias vías para que la ciudadanía exprese su opinión; para ello se colocarán varios buzones y se podrá hacer uso de la dirección de email areatzapartehartzea@gmail.com.

ORDENANTZA FISKALAK ALDATUKO DIRA

Udal tasak eta zergak arautzen dituzten ordenantza fisikaletan aldaketak egingo ditu Areatzako Udalak. Alde batetik, Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa egin behar-ko dute laster herriko eraikin askok, eta ondorioz, etxebizitza batzuei obrak egitea egokituko zaie. Obrak egiteko urgentzia zenbaterainokoa den ikuskaritza egin osteko txostenek zehaztuko die etxe jabeek: berehalakoa, oso presazkoa, presazkoa edo gomendagarria izango da.

Obrek etxe jabeek eragingo dien gastuari udaleko lizentzia urbanistikoaren tasa eta Instalazioen, Eraikuntzen eta Obren gaineko Zerga gehitu behar zaio. Horrek guztiak gastu handia ekarriko die eraikinen jabeek epe laburrean, eta beraz, Areatzako Udalak bere esku dauden zergak eta lizentzia urbanistikoaren tasa aldatzea erabaki du, obren urgentzia berehalakoa, oso presazkoa eta presazkoa den kasuetan.

Herritarren iritzia

Beste alde batetik, honako tasa hauek ere aldatzea aztertzen ari da udala: txakur abandonatuak batzeari dagozkionak eta udalekuei eta igerilekuari dagozkienak. Izan ere, txakur abandonatuak batu, mantendu eta zaintzeko enpresa bat kontratatu du udalak aurrean, eta horrek gastua handitzea ekarri du. Hori dela eta, txakur abandonatuen jabeek aplikatzen zaizkien tasak handitzea edo aldatzea aztertzen ari da udala. Bestetik, bai udalekuek baita igerilekuek ere gastu handia eragiten diote udalari, eta, ondorioz, erabiltzaileek zerbitzu horientatik ordaintzen dituzten kuotak berrikusi egingo dira.

Aldaketa horien guztien inguruko iritzia batu nahi ditu udalak. Horretarako, bai herritarren, bai elkarten ekarpenak jasotzeko baliabideak ipiniko dira, guztien artean ordenantzarik egokienak prestatzeko helburuarekin.

SE VAN A MODIFICAR LAS ORDENANZAS FISCALES

El Ayuntamiento de Areatza va a modificar las ordenanzas fiscales. Se ha considerado necesario modificar el tipo impositivo para las obras resultantes tras realizar la Inspección Técnica de Edificios. Dichos resultados pueden exigir a las personas propietarias de las viviendas la realización de obras de forma inmediata, muy urgente, urgente o recomendada. Estas obras se deberán hacer en un plazo reducido de tiempo y, además del costo de las mismas, se deben pagar el Impuesto sobre Instalaciones, Construcciones y Obras y la tasa por la licencia urbanística. Visto el impacto económico, en el caso de obras inmediatas, muy urgentes o urgentes se van a modificar el impuesto y la tasa de la licencia.

Opinión de la ciudadanía

Por otro lado, se ha evaluado la posibilidad de modificar las tasas de recogida de perros abandonados y las de colonias de verano y de acceso a las piscinas municipales.

Este año se ha contratado una empresa para que realice el servicio de recogida de perros abandonados, incrementando el coste que supone al ayuntamiento. En cuanto a las tasas por colonias de verano y acceso a las piscinas, se considera que se deben revisar las cuantías y los criterios de aplicación de las mismas.

El ayuntamiento quiere contar con las opiniones de la ciudadanía y de las asociaciones de Areatza, por lo que próximamente se establecerán distintos sistemas para recoger sus aportaciones.

PARTE HARTZEA SUSTATZEKO PROIEKTUA, ELHUYAR ENPRESAREKIN

Areatzako Udalak parte hartzea sustatzeko proiektu garatuko du urteko bigarren sei hilekoan, eta horretarako Elhuyar enpresa izango du bidelagun. Hala, Areatzako Udalaren helburua, batetik, hainbat parte hartze foro indartzea da, besteak beste, Jai Batzordea edota aurrekontu parte hartzaileen kanpaina, eta, beste alde batetik, bestelako baliabide eta ekimenetan ere herritarren parte hartzea sorrarazi eta iraunaraztea.

Hala, udalak esperientzia handiko Elhuyar enpresaren laguntza eta aholkularitza jasoko du horretarako.

PROYECTO PARA PROMOVER LA PARTICIPACIÓN CIUDADANA, CON LA AYUDA DE ELHUYAR

El Ayuntamiento de Areatza va a desarrollar un proyecto para impulsar la participación ciudadana en el segundo semestre del año, y para ello va a contar con la ayuda de la empresa Elhuyar. El objetivo del ayuntamiento es reforzar los foros de participación ya existentes, e impulsar la activación y permanencia de la participación de los/as ciudadanos/as en nuevas iniciativas.

AREATZAKO UDALA GORBEIALDE ENTITATETIK ATERA DA TURISMO ATALEAN

Gorbeialde entitatea hainbat udalerrik osatzen duten landa eremua garatzeko elkarte bat da. Bi alderdi lantzen ditu batez ere; batetik lehen sektorea, nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzaren sektorea alegia, eta, bestetik, turismoaren sektorea. Lehen sektoreko atalean Gorbeialden 14 udal gaude; turismoaren atalean, ordea, lehen 19 udal zeuden, eta une honetan 6 daude, beraz 13 udalek Gorbeialdeko turismo alorretik ateratzea erabaki dute.

Areatzako Udala bi ataletan egon izan da orain arte; turismoaren arloan 4.900 euroko kopurua ordaindu zuen 2015. urtean; hurrengo urtean, 2016an, turismo maila baxuago batean jarri zen Areatza, eta horrenbestez 3.569 euroko zenbatekoa ordaindu zuen Areatzako Udalak. Hala ere, bi urteko hausnarketa prozesuaren ondoren entitatetik ateratzea erabaki du udalak turismoaren arloan.

Zergatiak

Izan ere, udaleko gobernu taldearen ustez Gorbeialdek ez du bete Areatzan turismoa sustatzeko funtzioa; azken urteetan ez da inolako proiekturik landu, ezta inolako programazio turistikorik udalean aurkeztu; horrez gain, ez da antzeman Areatzako Udalak inbertitutako kapitala bueltan herrirako erabili denik. Gorbeialde bezalako elkarte bat aitzindaria izan behar da turismo planak proposatzen eta lantzen, eta momentu honetan egoera horretatik oso urrun dago.

Egoera honek Areatzako Udala turismo arloa lantzerantz eraman du, eta horrela azken bi urteetan turismoaren alde Areatzan egindako gehiena udalak berak egin du, esate baterako San Inazio Egunean bertara hurbildutako artean herriko informazioa banatzea, herriaren presentzia zabaltzea sare sozialetan, kultura eta musika ekimenak antolatzea eta zabaltzea, herriaren seinale eta panel berriak jartzea, Gorbeialdeko ibilbide berriak seinalizatzea, etab. Hala, Gorbeialdek ez ditu udal gobernuaren espektatibak bete, eta Gorbeialderi ordaindu beharreko diru horrekin gauzak beste era batera egin daitezkeela ondorioztatzen du udalak.

Horrez gain, mendiko ibilbideak prestatu, homologatu eta mantentzea hasiera batean Gorbeialdek egin beharreko lana zen, eta gure eskualdearen izaera kontuan hartuta, turismoaren arloan ezinbestekotzat jotzen du udalak. Gorbeialdek, hala ere, udalari kontsultatu gabe lan hori egiteari uko egin zion eta Gorbeian ibiltzeko zerbait ibilbide labur atontzeko lana udalak egin du, herriko mendi taldearekin batera.

Bukatzeko aldera, nabarmendu behar da entitateak adierazten duena ez datorrela bat errealitatearekin. Udal gobernu honek beste era batera sustatu nahi du turismoa eta beste turismo eredu batzuk landu eta bultzatu daitezkeela sinesten du.

Aurrerantzean

Gobernu taldearen erabaki honek ez du esan nahi, halere, aurrerago berriz ere entitatean sartzeko erabakia hartzea ezinezkoa denik. Hala, gauzak hobera joan daitezkeela ikusiz gero, Areatzako Udalak berriz ere entitatean sartzearen alde egin dezake etorkizunean.

EL AYUNTAMIENTO YA NO ESTÁ EN GORBEIALDE TURISMO

Gorbeialde es una agencia de desarrollo rural que tiene entre sus objetivos la promoción del sector primario (agricultura, ganadería y silvicultura), y la promoción del sector del turismo. En lo que respecta al sector primario, la entidad agrupa 14 municipios, y en el sector del turismo agrupa a 6 municipios de los 19 que agrupaba, es decir, 13 localidades no están ya en el apartado de promoción del turismo de Gorbeialde.

Areatza participaba hasta ahora en los dos apartados; en lo que respecta al sector turismo, en el año 2015 se abonó una cuota de 4.900 euros. En 2016 Areatza se colocó en un nivel inferior, por lo que la cuota a pagar fue de 3.569 euros. Tras una reflexión de dos años, el equipo de gobierno ha decidido abandonar la entidad en el apartado de turismo.

Motivos

Bajo el punto de vista del equipo de gobierno, Gorbeialde no cumple con la función de promover el turismo en nuestro municipio; durante los últimos años no se ha elaborado ningún proyecto, y no se ha presentado ante el ayuntamiento programación turística alguna. Además, no se ha percibido que la inversión realizada por el consistorio haya supuesto un beneficio equivalente para Areatza. Una entidad como Gorbeialde debería proponer y diseñar planes de promoción del turismo, y en este momento se encuentra muy lejos de esa situación.

Esta carencia de iniciativa ha llevado al ayuntamiento a decidir que debe liderar dicha función, y la mayoría de las actividades realizadas durante los últimos dos años han sido ejecutadas por el ayuntamiento. Así, por ejemplo, se ha repartido información a las personas visitantes el día de San Ignacio, se ha visibilizado y se ha expandido la presencia de Areatza en las redes sociales, se han organizado iniciativas culturales y musicales, se ha señalado una nueva ruta en Gorbea, se han colocado señales y paneles informativos, etc.

Además, preparar, homologar y realizar las tareas de mantenimiento de los itinerarios de Gorbea era, en un principio, una función de Gorbeialde, siendo esta tarea fundamental desde el punto de vista del ayuntamiento para promover el turismo en Areatza; sin embargo, Gorbeialde rechazó ocuparse de ese cometido sin ni siquiera consultarlo con el ayuntamiento y ha sido el ayuntamiento, junto con el grupo de montaña del municipio, quien se ha encargado de ello.

Por último, el ayuntamiento no descarta volver a incorporarse a Gorbeialde, en caso de percibirse un cambio significativo en el seno de la entidad.

BASOEN USTIAPEN KONTRATUA HUTSIK GERATU DA BIGARREN DEIALDIAN

Areatzako basoetako ustiapen kontratua eman gabe geratu da bigarren deialdian; horrenbestez, datozen asteetan beste deialdi bat egingo du udalak, esleipena egiteko ahalgina egite aldera.

Udalaren basoetako zuhaitzak moztu eta materiala hainbat erabilerrara bideratzea da kontratu hauen helburua, besteak beste, zurgintza eta papergintzara. Hala ere, azken urte hauetan merkatuaren joera prezioak jaiste da.

LA EXPLOTACIÓN FORESTAL, SIN ADJUDICAR

El contrato para la explotación forestal tampoco se ha adjudicado en la segunda convocatoria, por lo que el ayuntamiento hará una nueva convocatoria próximamente. El objetivo de este contrato es talar los árboles de los bosques municipales para utilizar la madera para papelería y carpintería.

AURTEN ERE BADATOK UDALEKU IREKIAK

Aurten ere ekainaren 26tik uztailearen 7ra bitartean udalekuak izango dira Areatzan.

Suspergintza elkartearen bitartez burutzen dira eta, besteak beste, erregistro formaletik kanpo euskara maila hobetzea, gurasoei oporraldian lana eta familia bateratzeko aukera ematea edota umeen autonomia pertsonala garatzea dira ekimen honen helburuetako batzuk. Herriko igerilekuetara joan, hainbat jolas egin, eta txango bi egiteko asmoa ere badute, Eureka Museora (Donostia) eta Karpin Abenturara, zehazki.

Bi aukera izan dira aurten ere apuntatzeko, parte hartu nahi izan den astean arabera. Hala, Suspergintza elkarteak bi begirale jarriko ditu, eta begiraleak herrikoak bertakoak izango dira.

YA ESTÁN LISTAS LAS COLONIAS DE VERANO

Un año más, los/as más pequeños/as de Areatza podrán disfrutar con las colonias de verano, del 26 de junio hasta el 7 de julio, gestionadas por Suspergintza Elkartea. Además de ayudar en la conciliación laboral y familiar, se trabajará para desarrollar la autonomía, la solidaridad y las relaciones entre los/as niños/as, y realizarán dos excursiones al Museo Eureka de Donostia y a Karpin Abentura.

Para ello se emplearán diversos juegos y excursiones, con la ayuda de dos monitores/as de Suspergintza Elkartea, los/as dos vecinos/as de Areatza.

GAZTE DI PLANA ONARTU DA MANKOMUNITATEAN

Bi urteko negoziazio eta tramitazio lanen ondoren, berriki Gaztedi plana onartu da Arratiako Udalen Mankomunitatean, 2017-2019 aldirako. Arratiako gazte guztiei zuzendutako proiektu bat da, eta mota askotako jardunak bildu ditu, besteak beste, enpleguan eta prestakuntzan eragiteko jarduketak, mugikortasunekoak, berdintasunekoak edota arriskuak murrizteko neurriak.

Aurrekontuaren zati handiena gazteen enplegua eta prestakuntza sustatzera bideratuko da. Hain zuzen ere, arlo horretan zenbait ikastaro antolatu dira, eta autoenplegua eta ekintzaitza bultzatzeko egingo da lan, inguruko entitateekin lankidetzan. Mugikortasunari dagokionez, herriko jaietatik itzultzeko autobus zerbitzuari eutsiko zaio; prebentzio arloan, bestalde, informazioa eta aholkularitza ematen jarraituko da, bai ikastetxeetan, bai jai giro desberdinetan. Azkenik, Beldur Barik programarekin ere jarraituko da aurrerantzean, berdintasunaren gaia lantzea ezinbestekoa baita.

Proiektua onartzea beharrezkoa da Aldundiko diru laguntza jasotzeko, eta, horrenbestez, Aldundiak garrantzitsutzat jotako ildo nagusiak landuko dira datozen urteetan. Gainerako entitateekin lankidetzan aritzeaz gain, udalak gazteen iritziak eta inpresioak ere jaso nahi ditu, erakundeen lana gazteen beharrezan errealekara ahal bezainbeste doitzeko. Hala, aurrerantzean horretan ere arituko da udala.

SE HA APROBADO EL PLAN GAZTE DI EN LA MANCOMUNIDAD

Tras dos años de negociaciones y tramitaciones, recientemente se ha aprobado el plan Gaztedi 2017-2019 en la Mancomunidad. Se trata de un proyecto para la comunidad joven de Arratia, que aglutina actividades de distinta índole, recogiendo, entre otras cosas, actuaciones de empleo y formación, movilidad, o prevención de riesgos.

La mayor parte del presupuesto se destinará al empleo y la formación de los/as jóvenes. Concretamente, en este aspecto se organizarán sendos cursos y se promoverá el autoempleo y el emprendimiento. En lo que respecta a la movilidad, el proyecto prevé seguir ofreciendo los servicios de autobús para volver a casa desde las fiestas de las localidades próximas. En materia de prevención se seguirá ofreciendo información y asesoramiento tanto en los centros escolares como en un entorno más festivo, y también se mantendrá el programa Beldur Barik.

La aceptación del proyecto es un trámite necesario para conseguir la correspondiente subvención de la Diputación, por lo que el proyecto recoge actuaciones ligadas a las líneas consideradas prioritarias por la Diputación. Además de eso, el ayuntamiento quiere contar con la opinión de la población joven del municipio acerca de estas actuaciones, para poder ajustarlas a las necesidades reales de ese colectivo.

ENPLEGU BULEGOA ITXI DA, UDAZKENERA ARTE

Arratiako Udalen Mankomunitatearen eta Areatzako Udalaren elkarlanari esker, aurten ere Enplegu Bulegoa zabalik egon da Areatzan azken hilabeteetan, Askatasuna kaleko 34. zenbakian, hain zuzen ere. Bulegoan arlo honetako teknikari batek laguntza eskaini die bertara hurbildutako guztiei, lan eskaintzetan aurkezteko zein curriculum atontzeko. Orain, uda aldirako itxi egin da, baina Mankomunitateak aurreratu dutenez, udazkenean ziur aski bulegoa berriz ere zabalteko aukera egongo da.

Bulego mugikorra, urte osoan

Bulegoa itxi arren, Lanbidek badu bulego mugikorren zerbitzu bat; hala, furgoneta batean herriz herri dabiltzan zenbait teknikari ere laguntza eta aholkularitza zerbitzua eskaintzen diote behar duen orori. Gure herrira ere etortzen da, normalean asteazkenez, eta plazan kokatzen da; hona hemen datozen datak:

Uztailak 5 julio, 09:00-11:00

Uztailak 19 julio, 09:00-11:00

Abuztuak 2 agosto, 09:00-11:00

Abuztuak 16 agosto, 09:00-11:00

Abuztuak 30 agosto, 09:00-11:00
(lekua zehazteke, lugar por confirmar)

Irailak 13 septiembre, 09:00-11:00

Irailak 27 septiembre, 09:00-11:00

LA OFICINA DE EMPLEO, CERRADA HASTA OTOÑO

Gracias a la cooperación entre la Mancomunidad y el ayuntamiento, la oficina de empleo ha permanecido abierta en el número 34 de la calle Askatasuna. En ella, una técnico ha ofrecido asesoramiento para, entre otras cosas, presentarse a las convocatorias de ofertas de trabajo, o para preparar el currículum vitae. Así, según la Mancomunidad, probablemente en otoño pueda volver a abrirse.

La oficina móvil, durante todo el año

Aunque la oficina esté cerrada, el servicio móvil de Lanbide seguirá acudiendo a Areatza, donde ofrecerá ayuda y asesoramiento a quien lo necesite. Normalmente suele acudir los miércoles. Las próximas fechas pueden verse en el cuadro anexo.



JABEKUNTZA ESKOLAKO IKASTAROAK ONDO BALORATU DITUZTE

Arratiako Andren Jabekuntza Eskolaren partaideek joan den ikasturtearen balorazio ona egin zuten maiatzaren 27an Arantzazun egindako topaketan. Hala, guztira 93 emakumek hartu dute parte ikastaroetan, gehienak arratiarrak. Ikastaroak, gainera, nota onarekin baloratu dituzte parte-hartzaileek, "jendea gustura egon denaren seinale"; izan ere, askori ikastaroak laburrak izan direla iruditu zaie, eta gehiago sakontzeko beharra aipatu dute. Ondo baloratu dituzte, halaber, eskaini diren egutegia eta ordutegia, euskarazko eta gaztelarazko ikastaroen portzentajea eta ikastaroak Arratiako herri guztietan eskaini izana.

Hobetzeko puntuetan, gazteen partaidetza baxua nabarmendu dute, eta eskolaren funtzionamendua hobetzeko proposamen batzuk ere egin dituzte.

2017-2018 ikasturtera begira ere ipini ziren, baita ikastaro berriak proposatu ere. Lehendik egon diren batzuk mantendu egingo dira, eta ikastaro batzuen bigarren mailak ere aukera moduan jarriko dira. Jabekuntza Eskolakoek emakume guztiak animatu nahi dituzte egingo diren deialdietan parte hartzera, eskola guztien artean egiten jarraitu nahi dutelako.

ARRATIA MAILAKO DROGA KONTSUMOAREN DIAGNOSTIKOA OSATU DA

Aurreko aldirietan aurreratu genuen moduan, droga kontsumoaren diagnostikoa Areatzan hasi eta Arratia osora hedatu zen, eta zenbait hileko lanaren ondoren, prest dago. Horrela, Ortzadar enpresak eskualdeko beste udalerrietako datuak eta joerak jaso ditu, eta une honetan dokumentua berrikuste fasean dago, azken ukituak emanez. Dokumentua prestatzeko fase horretan, aipatutako enpresak hainbat bilera egin ditu herri guztietako elkarteekin, udal ordezkariekin zein entitate desberdinekin. Horrez gain, ikasleen iritzi eta bizipenak ere jaso dituzte.

Lana uztailean aurkeztuko da udal ordezkarien aurrean eta ondoren herritarrei ere proiektuan ateratako ondorio eta informazioaren berri emango zaie. Horretarako, dagokion unean jakinarazi eta zabalduko dira informazioa emateko bide eta moduak.

BUENA VALORACIÓN DE LA ESCUELA DE EMPODERAMIENTO

Las participantes de la Escuela de Empoderamiento de Arratia hicieron buena valoración del curso 2016-2017 en el encuentro celebrado el 27 de mayo en Arantzazu. La mayoría de las 93 mujeres que han participado en distintos cursos han calificado los mismos con buena nota. También han hecho buena valoración del calendario y del horario y del porcentaje de cursos en euskara y en castellano. Los cursos se han impartido en todos los pueblos de Arratia. En cuanto a puntos a mejorar, han destacado la baja participación de personas jóvenes.

Para el curso que viene se van a mantener algunos cursos, y se van a impartir nuevos cursos. La Escuela de Empoderamiento ha hecho un llamamiento a todas las mujeres de la comarca para que participen en futuras convocatorias.

DIAGNÓSTICO SOBRE EL CONSUMO DE DROGAS

Ya se ha completado el diagnóstico sobre el consumo de drogas de Arratia; durante estos meses la empresa Ortzadar se ha reunido con diversas asociaciones y representantes municipales, y también ha recogido opiniones y vivencias de los/as estudiantes; en este momento se está confeccionando el documento final.

El resultado se presentará en julio ante los/as representantes municipales; posteriormente, el ayuntamiento informará también a la ciudadanía de los resultados obtenidos.



JAN-EDANA ETA MUSIKA BLUES AND BEER JAIALDIAREN ESKUTIK

Blues and Beer jaialdia maiatzaren 24tik 27ra artean ospatu zen Areatzan, eta antolatzaileak oso pozik agertu dira lehen edizio honek izandako harreragatik. Egitarauan hainbat jarduera izan ziren, besteak beste, hitzaldiak, kontzertu didaktikoak edota kalejirak, baina batez ere ostiral eta larunbateko kontzertuak eta jan-edanak izan ziren protagonista nagusiak, hain zuzen ere, Blue Fever eta Travelling Brothers ostiralean, eta Sonic Free Station, Last Fair Deal eta The Pushermen larunbatean. Horrez gain,

Munduko I. Garagardo Kupel Jaurtiketako Lehiaketa ere jokatu zen plazan, eta hainbat lagunek hartu zuten parte.

Jan-edanari dagokionez, jaialdian Hernanin (Gipuzkoa) kokatutako Basqueland Brewing Project garagardo lantegiko garagardoak zerbitzatu ziren, eta bai bazkaltzeko, bai afaltzeko Eskatza eta mahatsa izeneko foodtrucka izan zen plazan bertan.

Aipatu behar da udalak jaialdi honen %20 bakarrik finantzatu duela, beste guztia finantzaketa pribatutik heldu baita; beraz, elkarlanerako gune egokia bihurtu da jaialdia.

BUEN AMBIENTE EN EL FESTIVAL BLUES AND BEER

Los/as organizadores/as del Blues and Beer celebrado desde el 24 al 27 de mayo se han mostrado satisfechos/as con la acogida que ha tenido el festival. Se ha podido disfrutar con charlas, conciertos didácticos y pasacalles, pero los verdaderos protagonistas fueron los conciertos del viernes y del sábado: Blue Fever y Travelling Brothers; y Sonic Free Station, Last Fair Deal y The Pushermen, respectivamente. También se pudieron degustar las cervezas de Basqueland Brewing Project, de Hernani, y la comida del foodtruck Eskatza eta mahatsa.

Es necesario resaltar que el ayuntamiento ha financiado solamente el 20% del festival, ya que el resto se ha financiado desde el ámbito privado.

GIRO ONEAN OSPATU DIRA KARPOKO JAIK

Karpoko jaietako bi egunetan –maiatzaren 6an eta 7an– eguraldia lagun izan da aurten, eta giro bikaina sortu da. Lehen egunean, plazan elkartu ziren helduak eta haurrek, Santi Kurutzera oinez igo-tzeko. Goian, meza entzuteko edota mokadutxoak jateko aukera izan zen.

Santi Kurutzera igo ez zirenak Karpon gelditu ziren gisatu txapelketarako prestateta lanetan. Lau koadrilek aurkeztu zuten gisatua, eta ondoren, 130 pertsona elkartu ziren bazkaritan.

Arratsaldetik aurrera, kalejira eta dantzen txanda izan zen. Zornotza, Sestao, Deusto eta Areatzako erraldoiek herriko txoko guztiak igaro zituzten; eta egunari amaiera emateko, Dantzaro musika taldearen emanaldiarekin dantzan aritzeko aukera bikaina izan zuten areatarrek herriko plazan.

Ganadu azoka

Biharamunean, Areatzako III. Ganadu Azoka ospatu zen, Upokolupetza elkar-teak antolatuta. Elkartekideek beraien ganaduak jarri zituzten ikusgai, behiak, behorrak eta ardiak, besteak beste. Gainera, Mikel Etxebarria eta Barberena anaien arteko desafioaz gozatu ahal izan

zuten herritarrek: ardi mozten eta tron-zan aritu ziren, nor baino nor.

Horrez gain, Areatza inguruko ekoiz-leen azokan hainbat produktu eroste-ko aukera egon zen hamalau postutan: okela, gazta, barazkiak, eztaia...

FIESTAS DE KARPO

El buen tiempo acompañó a las fiestas de Karpo el 6 y 7 de mayo. El sábado, los/as vecinos/as subieron andando a Santi Kurutz, donde pudieron degustar de un bocado y/o asistir a la misa. Los/as que no subieron hasta allí quedaron en Karpo a preparar guisados para el concurso. Después, se reunieron 130 personas en la comida popular.

A la tarde, ya en el pueblo, los gigantes de Zornotza, Sestao, Deusto y Areatza animaron las calles, y para finalizar el día, los/as vecinos/as reunidos/as en la plaza bailaron al ritmo del grupo Dantzaro.

Feria de ganado

El domingo tuvo lugar la tercera edición de la feria de ganado. Los/as socios/as de Upokolupetza bajaron su ganado al pueblo, y también se pudo disfrutar del desafío entre Mikel Etxebarria (tronza) y los hermanos Barberena (esquilando ovejas), además de comprar género de los/as productores de Areatza y alrededores.

JAIA	GASTUAK
ERRALDOIAK:	1.300 €
GISATU LEHIAKETA SARIAK:	130,00 €
EROSKETAK:	195,05 €
ERROMERIA:	900,00 €
HESIAK:	1.258,40 €
SOINUA:	665,50 €
INPRENTA LANAK:	135,20 €
GORBEIALDE:	72,60 €
GUZTIRA:	4.656,70 €



DATOZEN HITZORDUAK: FOLKLORE BIZIAN ETA KALE ANTZERKIA

Datozen hileetan ere hainbat kultura hitzordu izango dira gurean; izan ere, jaietz gain, Folklore Bizian dantza emanaldia eta zenbait kale antzezpen ikusi ahal izango dira Areatzan.

Batetik, iaz bezalaxe aurten ere Folklore Bizian jaialdia izango dugu. Gal-dakaoko Andra Mari Dantza Taldeak antolatzen duen ekimena uztailearen 24an iritsiko da Areatzara, eta aurten Uruguai eta Armeniako dantza taldeek bisitatuko gaituzte; hala, hiru taldeen dantza ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dugu.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza bati esker, lau antzezlan izango ditugu gurean. Horieta bat San Juan bezperan ikusi ahal izan genuen, Zo-Zongó taldearen *Psycho-Clown* obra hain zuzen ere. Hurrengo zitak honako hauek izango dira: uztailearen 7an Zirkozaurre taldeak *Vademekun* lana aurkeztuko digu; uztailearen 21ean Pez Limbo taldeak *Lana* antzezlan-a, eta, abuztuaren 26an, eta jaien egitarauaren barruan, Deabru Beltzak konpainiak *Su a Feu* ikuskizuna aurkeztuko du. Obrak mutuak eta familia osoari zuzendutakoak izango dira.

PRÓXIMAS CITAS CULTURALES

Durante las próximas semanas podremos disfrutar en Areatza de varias citas culturales, ya que contaremos con el festival Folklore Bizian y con varias obras de teatro.

Por un lado, este año vuelve la iniciativa Folklore Bizian, el festival de danza organizado por el grupo Andra Mari Dantza Taldea de Gal-dakao; en esta edición nos visitarán dos grupos de Uruguay y de Armenia, que junto al grupo vasco nos ofrecerán un espectáculo de danza el día 24 de julio.

Por otro lado, gracias a una subvención del Gobierno Vasco, este año podremos disfrutar de cuatro obras de teatro; la primera se ofreció en la víspera de San Juan, de la mano del grupo Zo-Zongó. Las próximas citas serán el 7 de julio con la obra "Vademekun" del grupo Zirkozaurre, el 21 del mismo mes con la obra "Lana" de Pez Limbo, y el 26 de agosto, dentro de la programación de fiestas, con la actuación de Deabru Beltzak. Todas las obras son mudas y para todos los públicos.

SAN JUAN SUA, ZO-ZONGÓ TALDEAREN ERRITMOAREKIN GIROTUTA

Ohitura den bezala, ekainaren 23an San Juan bezperako sua piztu zen Zubizarra. Ohiko mokadutxo eta suaz gain, aurten Zo-zongó taldearen ikuskizunaz ere gozatu ahal izan genuen, eta euri lanparrak iluntzea zapuztekoarisku nabarmena bazegoen ere, azkenean gau giro polita sortu zen.

Sua egin aurretik Zubizarra hurbildu zen edonork sardina zein urdaia jateko aukera izan zuen, horretarako 50 kg sardina eta 15 kg urdail erosi baitziren. Ondoren, sua piztu zen eta ohitura den bezala bertara gaitz guz-tiak bota ondoren Zo-zongó taldeak perkusioz animatu zituen gure kaleak, Zubizaratik hasita, Goikokale eta plaza ingurura iritsi arte. Hasieran zen-bait haur beldurtu egin baziren ere, pixkanaka *Psycho-Clown* ikuskizunak jendea animatu zuen, eta, hala, Zo-zongó taldeak argi eta perkusioarekin girotu zituen gure herriko txokoak.

SAN JUAN, AL RITMO DE ZO-ZONGÓ

Un año más, también este año se ha mantenido la tradición de la fogata en la víspera de San Juan, el 23 de junio, en Zubizarra. Tras disfrutar de un tentempié y prender el fuego, este año se ha podido disfrutar del espectáculo de Zo-zongó, que animó las calles a golpes de percusión y luces, desde Zubizarra hasta la plaza.



REGUEIBERTSOK GALIZIAKO ETA ARRATIAKO GAZTEAK ELKARTU DITU

Aurten ere Regueibertso ekimenak Galiziako eta Arratiako gazteak elkartu ditu. Apirilean etorri ziren 50 gazte Galiziatik, eta regueifean aritu ziren; eta bertokoak, nola ez, bertsotan. Regueifa elkarrizketa kantatu bat da, eta inprobisazioa eta ironia ditu oinarri.

Galiziako gazteek hiru egun egin zituzten Euskal Herrian, eta Areatzan hartu zuten ostatu; udaletxean egin zuten lo, eta igerilekuko taberna gosaldia eta afaldu. Lehen egunean, Igorren ongiatorria jaso eta bazkaldu ostean, Areatzara etorri ziren. Arratsaldean, herria eza-gutu zuten, Angel Larrea gidari zutelak. Ostean, herriko hainbat txokotan bertsoak eta regueifak entzuteko aukera egon zen, eta ondoren Gaztetxean elkartu ziren guz-tiak. Hurrengo egun bietan Zeanuriko Dantzari Eguna-rea eta Ondarroara joan ziren, hurrenez hurren.

Regueibertso iaz sortu zen, eta horri esker, Galiziako eta Arratiako gazteak harremanetan jartzeaz gain, bi hiz-kutzen eta kulturen trukea egiten dute.

REGUEIFAS Y BERTSOS DURANTE TRES DÍAS

Un año más, los/as jóvenes de Galicia y Arratia se han reunido gracias al proyecto Regueibertso, nacido el año pasado. Así, durante el 28, 29 y 30 de abril, unos/as 50 jóvenes gallegos/as cantaron regueifas y los/as vascos/as bertsos. Las regueifas son diálogos cantados, donde no deben faltar la improvisación y la ironía.

Los/as jóvenes gallegos/as se acomodaron en Areatza. El primer día recibieron la bienvenida en Igorre, y tras una comida, vinieron a Areatza, donde hicieron una visita para conocer el pueblo. Por la noche, cenaron en el Gaztetxe. Al día siguiente se fueron al Dantzari Eguna de Zeanuri, y antes de despedirse, conocieron Ondarroa.



AREATZAKO NESKATOAK BIZKAIKO PALA TXAPELKETA LEHIATU DIRA

Uxue Alberdik eta Aiala Sautuak Bizkaiko Pala Txapelketa irabazi dute

Areatzako hainbat neskato Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen duen Eskola Kirolaren baitako txapelketa lehiatu ziren, eta zenbait maiatzaren 13an jokaturako finalerara ere iritsi ziren; horietako bik, Uxue Alberdik eta Aiala Sautuak, gainera, Bizkaiko Pala Txapelketa irabazi zuten benjamin-alebin kategorian, gomazko pilotarekin. Horrez gain, herriko beste neskato batzuk ere iritsi ziren finalerara, hain zuzen ere June Mintegi, Katalin Lejarreta eta Irati Ilarregik osatutako hirukotea (benjamin-alebin kategorian eta minitenis pilotarekin) eta Bego Aldekoa eta Amaia Zuloaga, azken hau Leize Magunazelaiaren ordez, haur-kadete mailan eta gomazko pilotarekin.

Orain dela lau urte hasi ziren pala eskaintzen eskolaz kanpoko ekintzen artean, eta urte berean Eskola Kirolean lehiatzen hasi ziren Areatzako neskak. Aurten, ikasturte osoan zehar herrietako frontoietan ibili dira, Orozkon, Elorrioren, Atxondon, Zeanurin, Arteagan, Getxon eta Gantikan, besteak beste, eta finalak Bilboko Miribilla auzoko Bizkaia frontoian jokatu zituzten. Frontoiaren handitasunak jokalaririk apur bat urduritu bazituen ere, maila ona erakutsi zuten gure neskek. Guztira 25 neska ibili dira ikasturte honetan palaz jokatzeko; hala ere, guztiak ez dira lehiatu, asko hasiberriak izan direlako. Datorren ikasturtean eta hurrengo urteetan ere palakadak emateko gogoz egotea espero dugu. Zorionak, neskak!



LAS JUGADORAS DE PALA PARTICIPAN EN EL CAMPEONATO DE BIZKAIA

Uxue Alberdi y Aiala Sautua se han proclamado campeonas de pala de Bizkaia

Varias jugadoras de pala de Areatza han participado en el campeonato de pala de Bizkaia organizado por la Diputación dentro de la iniciativa Eskola Kirola, y algunas de ellas llegaron a disputar las finales celebradas el 13 de mayo en el frontón Bizkaia. Dos de ellas, Uxue Alberdi y Aiala Sautua, se proclamaron además campeonas del torneo, en la categoría benjamín-alevín, con pelota de goma. A la final del campeonato también llegaron otras cinco jugadoras de Areatza: el trío formado por June Mintegi, Katalin Lejarreta e Irati Ilarregi, en categoría de benjamín-alevín y con pelota de minitenis; y la pareja infantil-cadete formada por Bego Aldekoa y Amaia Zuloaga (sustituyendo a Leize Magunazelaia), con pelota de goma.

Hace cuatro años que comenzaron a ofrecer la modalidad de pala como deporte extraescolar, y este año han sido 25 las chicas que han participado en la actividad. Nuestras jugadoras han demostrado tener muy buen nivel y esperamos que sigan jugando durante muchos años más. Zorionak, neskak!

ESKU PILOTAKO FINALAK, AREATZAN

Arratia-Nerbioi Txapelketako 33. Edizioko Esku pilotako Finalak Areatzan jokatu ziren ekainaren 3an. Hala, hainbat herritako pilota eskoletako jokalaririk gure herrian batu ziren, eta partidak hasi aurretik plazatik frontoira egindako kalejiran elkartu ziren, guztiak zuriz jantzita, bakoitza bere eskolako kirol jertsearekin. Bokatekin indarrak hartu ostean, finalak hasi ziren: hasiberrien kategorian, Orozko eta Zaratamoko umeak aritu ziren, eta aurreumetxo mailan, Zaratamo eta Zornotzakoak; Orozkokoak eta Zaratamokoak nagusitu ziren, hurrenez hurren.

Finaleko partidez gain, txapelketako bikote onenek ere jokatu zituzten beste norgehiagoka batzuk, erakustaldi modura: Zeanuri eta Lemoako umetxoak, Arrankudiaga eta Dimako umeak eta Dima eta Zeanuriko gazteak aritu ziren frontoi bete jenderen aurrean.



FINALES DEL CAMPEONATO DE ARRATIA-NERBIOI EN AREATZA

El 3 de junio se jugaron las finales de la 33. edición del Campeonato de Arratia-Nerbioi de pelota a mano en el frontón de Areatza. Antes de los partidos, los/as pelotaris de todas las escuelas hicieron un pasacalles desde la plaza hasta el frontón. En total se jugaron cinco partidos: dos finales en las categorías principiante (Orozko-Zaratamo) y pre-benjamín (Zaratamo-Zornotza), donde Orozko y Zaratamo se proclamaron ganadores, y tres partidos a modo de exhibición de las mejores parejas del campeonato (Zeanuri-Lemoa; Arrankudiaga-Dima; Dima-Zeanuri).



ZER GALDETU ERABAKI DU AREATZAKO GURE ESKU DAGOK

Areatzako Gure Esku Dagok deituta joan den ekainaren 9an egindako batzar zabalean azaroaren 5eko herri galdeketa egingo den galdera erabaki zen 24 herritarren artean; hain zuzen ere, **Euskal estatu burujabe baten hiritarra izan gure dozu?** izango da herritarrei plazaratuko zaien galdera. Antolatzaileek dinamika parte-hartzailea erabili zuten horretarako: lantalde txikiak osatu ziren eta dinamizatzaile bat egon zen talde bakoitzeko. Egindako proposamen ezberdinetatik bakarrik aukeratzeko garaian, ahalik eta adostasun zabalena izateari eta parte-hartze zabala bermatzeari eman zitzaion garrantzia.

Hori baino lehen, ekainaren 2an, Prest Eguna ospatu zen, eta bertan jendez osatutako galdera ikur erraldoi bat irudikatu zen, "erabakitzeko prest" daudela adierazteko.

Dagigun Areatza

Bestalde, herri galdeketa antolatuko duen elkarte ere sortu da: Dagigun Areatza. Orain, galdeketa burutu ahal izateko finantzazioa lortzen ari dira elkarteko kideak, eta horretarako, ostiralero, pintxoak eta kamisetak jarriko dituzte salgai plazan, eta udan ere hainbat ekintza antolatuko dituzte, jaietan eta euskal jaian, besteak beste.

Dagigunetik adierazi dutenez, elkarteko kide izateko aukera beti dago zabalik. Kide egiteko zein elkarteari laguntzeko, nahikoa da gureeskudago.areatza@gmail.com helbidera idaztea.

LA PREGUNTA DE LA CONSULTA ESTÁ YA DECIDIDA

Los/as asistentes a la reunión celebrada el 9 de junio decidieron cual será la pregunta que se planteará en la consulta popular del 5 de noviembre; concretamente, será "¿Desea ser ciudadano ó ciudadana de un estado vasco soberano?". Los/as participantes se repartieron en pequeños grupos, y decidieron la pregunta empleando una dinámica participativa. Previamente, el 2 de junio, se celebró un encuentro para representar un signo de interrogación, en aras de simbolizar que la ciudadanía está lista para decidir.

Por otro lado, se ha creado la asociación Dagigun Areatza, que actualmente se encuentra recabando fondos para poder realizar la consulta, y para ello, van a poner varias iniciativas en marcha.

Para finalizar, los/as participantes de Dagigun han recordado que quien se anime a participar o a ayudar solo tiene que escribir un correo a gureeskudago.areatza@gmail.com.

LABAYRU TOPONIMIA PROIEKTUA LANTZEN ARI DA

Labayru enpresa Areatzako toponimia proiektua lantzen ari da, eta une honetan hainbat herritarren grabazioak egiten ari da; horrela, herritarren testigantzak eta lekukotzak jaso nahi dira, inguruko toponimoak, lekuen eta eremuen izenak jasotzeko eta altxor aberats hori idatziz jasota uzteko. Horretarako, Labayruk hainbat emakume eta gizon aukeratu ditu, hizlarien adina kontuan hartuta betiere; grabazioekin bukatu ondoren lana prestatu eta aurkeztuko da, eta udalak bere baliabideen bitartez hedatuko du materiala.

Lanak udazkenean bukatzea aurreikusi da.

LABAYRU ESTÁ REALIZANDO UN PROYECTO SOBRE TOPONIMIA

La empresa Labayru está realizando un proyecto sobre la toponimia de Areatza. En este momento están realizando grabaciones de testimonios de vecinos/as, para recoger topónimos y nombres de lugares del municipio, y así, posteriormente, recoger ese valioso tesoro por escrito. Se prevé que el trabajo concluya durante el otoño, y con el material creado se confeccionará un documento que el ayuntamiento presentará y divulgará tan pronto como sea posible.



HARRERA BEROA 20. KORRIKARI

20. Korrika apirilaren 7an pasatu zen Areatzatik, eta ongietorri beroa eman zioten herritarrek. Arratsaldean, Korrika Txikian, herriko elkarte gehienek hartu zuten parte, eta gaua girotzeko, afaria, erromeria eta txokolatea izan ziren.

Goizaldean, 02:20 inguruan iritsi zen Korrika, eta euskararen lekukoa Zeanurirantz abiatu baino lehen, hainbat talderen eskuetatik pasatu zen: Beñat Etxebarria Lagun Taldea, Areatzako Udala, Guraso Elkarte eta AKKB (kilometroa erdibana) eta Areatzako EH Bildu eta Peña Gorbeako Gurutzeta. Udalaren izenean Kathrin Theisek eraman zuen lekukoa, Euskara Batzordeak hala erabakita. Egunak eta gauak utzi zituen irudiak Areatzako Udalaren Facebookeko orrialdean ikus daitezke.



20. EDICIÓN DE KORRIKA

Este año la Korrika llegó a Areatza la madrugada del 7 de abril. Beñat Etxebarria Lagun Taldea, el Ayuntamiento de Areatza, Guraso Elkarte, AKKB, EH Bildu de Areatza y Peña Gorbeako Gurutzeta fueron los encargados de llevar el testigo. En nombre del ayuntamiento lo llevó KathrinTheise, como propuso la Comisión de Euskera.

Para amenizar la espera por la tarde se celebró la KorrikaTxiki, y por la noche hubo cena, música y chocolate. Las fotografías de la jornada pueden verse en la página de Facebook del ayuntamiento (Areatzako Udala).



areatza
lantzen



Areatzako Udala



@areatzako_udala